

Jarduera orria



[Peru]

Sendotze Instituzionaleko eta Herritarren Partaidetzako Esperientzia

“1. Koaderno: “Ahulguneen analisia” dokumentuan jasotako informazioari dagokionez, hona hemen 4-6 pertsonako taldeetan egin daitezkeen 3 jarduera:

1. jarduera

Acopía eta San Pedro de Cachora barrutietan dauden bizi-baldintzak kontuan hartuta; lehenik eta behin, ikasle talde bakoitzak herritar talde bat aukeratu beharko du, eta horren arabera, 1. jarduera gauzatu. Herritar taldea era honetako izan liteke: adineko pertsonak, emakumeak, gizonezkoak, mutikoak, neskak, ezintasunak dituzten pertsonak, etab. Herritar talde horren arabera, honako lan hauek gauzatu beharko dituzte:

- Ez dituzten eta ondorioz urratzen diren Giza Eskubideak identifikatzea.
- Eskubide horiek ez betetzearen arrazoiak eta jatorria identifikatzea.
- Identifikatutako Giza Eskubide bakoitza ez betetzeak herritar talde horri nola eragiten dion azaltzea.

2. jarduera

1. koadernoan adierazitako zaurgarritasun guztietatik, talde bakoitzak bat aukeratuko du, eta modu eskematikoan, gizarteratzeko proiektu bat osatu beharko du, arazoa arintzen edo konpontzen ahalegintzeko. Proiektuak, gutxienez, 6 atal izango ditu; honako hauek:

- Proiektuaren helburu espezifikoaren definizioa.
- Proiektuaren onuradun izango den herritar taldearen identifikazioa eta deskribapena.
- Esku hartzeko estrategiaren definizioa.
- Jardueren definizioa eta programazioa.
- Beharrezko pertsona eta baliabide materialen identifikazioa.
- Metodologiaren eta ebaluazio tresnen definizioa.

3. jarduera

1. koadernoan adierazitako zaurgarritasunak zure ingurune hurbilean ere gertatzen dira? Horrela uste baduzu, zeintzuk gertatzen dira? Eta zein lekutan edo egoeretan gertatzen dira?